

KONTROL MOZIOA

BIZIKLETAREN ERABILERA SUSTATZEKO NEURRIAK DIRELA ETA

Ayem Oskoz Urrutikoetxeak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko urriaren 16an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiak bizikletaren kultura du, aurreko agintaldietan eginiko lanari esker, gero eta areagotuagoa gainera; agintaldi honetan, aldiz, ez da bizikletaren erabilera sustatzeko erraztasun handirik jartzen ari.

Erraztasunetako bat, zalantzarik gabe, bizikletentzeko aparkaleku gehiago jartzea litzateke eta, bestalde, gaur egungo bidegorri sarea hiriko mapetan iragartzea, bizikleta publikoko baseekin batera.

Ildo honetatik, Udal Gobernuak aurreikuspen gutxi aurkeztu ditu, bizikletaren erabilera areagotzeko, eta bada garaia udal honek plan bat aurkeztu dezan, orain arte bizikletaren alde egindako lan bikaina ezin baita eten.

Argi dago Donostiako garraio politika publikoetan bizikletak garrantzi eta zentralidade handiagoa izan behar duela, eta era normalizatuan, hiri antolakuntzan bizikleta eta honek behar dituen elementuak txertatu behar direla: aparkalekuak eta haien iragarpena, esaterako.

Honetaz interpelatuta, zinegotzi delegatuak ez zuen zehaztasun handirik eman eta ez zuen konpromiso garbirik hartu.

Honegatik guztiagatik, behean sinatzen duen zinegotziak KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio bizikleta aparkalekuak jartzeko plan eta kronograma bat aurkez dezan.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus - Tel. 943481027 -

- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio bidegorri sarea eta bizikleta publikoko aparkalekuak iragar ditzaten Donostiako kaleetan ipinitako mapetan.

Donostian, 2017ko urriaren 20an

Ayem Oskoz Urrutikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia